ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

| | |
|---|---|
| **ESP.** | **2019IPLE0007** |
| **ATALA.** | **IDAZKARITZA** |
| **GAIA** | **ALBIZTURKO UDALEKO OHIKO BILKURA** |

**2019-09-24ko UDALEKO OHIKO BILKURA**

Albizturren, 2019ko irailaren 24ean, arratsaldeko 19:00etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, Udaleko ohiko batzarra egin da, Alkate Iñaki Orbegozo Arrospide jauna duela.

BERTARATUAK:

- Iñaki Orbegozo Arrospide
- Alazne Urkizu Galarraga
- Aingeru Galarraga Barandiaran
- Larraitz Ezeiza Artola
- Aitziber Orbegozo Arrospide

BERTARATU EZ DIRENAK:

- Mikel Galarza Arrue
- Unai Dorronsoro Olarra

Udaleko idazkari kontu-hartzailea:

- Oihan Ostolaza Arruabarrena

AZTERGAIAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA
2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA
3. KONTU OROKORRAREN ONARPENA
4. EUDEL-EK PROPOSATURIKO SOLDATEN %0,3KO IGOERA
5. EGURTOKIEN ORDENANTZA
6. KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZKO KREDITU ALDAKETAREN 2019-KALD-0000004-00 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSAMENA
7. TOLOSALDEKO EMAKUME ETXEA
8. GALDERA ERREGUAK

## 1. AURREKO AKTAK ONARPENA

2019-07-08ko akta aho batez onartu da.

## 2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

2019ko 54 eta 78 bitarteko dekretuen berri eman da.

## 3. KONTU OROKORRAREN ONARPENA

Kontuan harturik jende aurrean egon den epean ez dela inolako alegaziorik izan, udalbatzak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- 2018ko kontu orokorra onartzea.

Bigarrena.- TVCP/HKEE-ra bidaltzea.

## 4. EUDEL-EK PROPOSATURIKO SOLDATEN %0,3KO IGOERA

2019ko otsailak 6ko Ezohiko Batzorde Kudeatzailearen Bilkuran udal langileen soldata 2019. urtean %2,25 igotzea erabaki zen.

Igoera hau onartzeko erabili zen EUDEL-en zirkularrak, 2018. urteko BPG-ren bilakaeraren araberako hazkunde gehigarri bat aurrikusten zuen uztailaren 1etik aurrera.

2018ko BPGren hazkundea prezio konstanteetan %2,5 baino altuagoa izan denez, EUDEL-ek proposaturikoa jarraituz 2019ko uztailak 1etik aurrera udal langileen soldata %0,3 igotzea adostu da.

## 5. EGURTOKIEN ORDENANTZA

2019ko otsailak 6ko Ezohiko Batzorde Kudeatzailearen Bilkuran Albizturko Udalerrian egurtoki eta portxeen eraikuntza arautzeko ordenantzaren hasierako onarpena burutu zen.

Espedientea jendaurrean jarri zen udaletxeko iragarki taulan 30 lanegunez, Udalaren web orrian eta Gipizkoako Aldizkari Ofizialean, herritarrek nahi zituzten iradokizunak aurkez zitzaten.

Millan Telleria Perurena izan da iradokizunak aurkeztu dituen bakarra.

Udalbatzak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Horiz markatua dagoen Millan Telleria Perurenaren iradokizuna onartzea eta Albizturko Udalerrian egurtoki eta portxeen eraikuntza arautzeko ordenantza behin betikoz onartzea.

ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

<ALBIZTURKO UDALERRIAN EGURTEGIEN ETA ATARIPEEN ERAIKUNTZA ARAUTZEKO ORDENANTZA

ZIOEN ADIERAZPENA:

Egurtegien eta ataripeen eraikuntzaren kontrol teknikoa eta urbanistikoa da Ordenantza honen xedea.Gainera, horien mantentze eta erabileraren erantzukizunak zehaztea da asmoa, eta horretarako bete beharreko baldintza batzuk ezartzen dira.

Horregatik guztiagatik, 7/1985 Legeak, apirilaren2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, ematen dizkion eskumenen arabera, onetsi egiten da Albizturko udalerrian egurtegien eta ataripeen eraikuntza arautzeko Ordenantza.

1. artikulu. Xedea.

Ordenantza honen xedea da izaera orokorrez arautzea partzela pribatuetan egurtegien eta ataripeen eraikuntzek bete behar dituzten baldintza teknikoak, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriakarautzen dituenak, eta2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, Euskal Herriko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak ezarritako mugen eta emandako atribuzioen barruan.

Albizturko udalerriaren barruko egurtegien eta ataripeen eraikuntza arautzen da, bai hiri-lurzoruan bai lurzoru urbanizaezinean.

2. artikulu. Eremua.

1. Ordenantza honen aplikazio-eremua Albizturko udalerri osorako da, baita titulartasun pribatuko egurtegi eta ataripe guztietarako ere,haien titularra pertsona fisiko edo juridiko bat denean.

3. artikulua. Beharrezko dokumentazioa.

3.1. Egurtegiak eraikitzeko beharrezko dokumentazioa:

1. Etxebizitza bakoitzeko egurtegi bat eraikitzeko lizentziaren eskaera egitean, dokumentazio hauek erantsi behar zaizkio:

Eskaeraren xede den partzelaren planoa, oinplanoan duen kokapena adierazita.

Oinaren planoa 1:100 eskalan eta egurtegiaren sekzioarena, bere dimentsioak adierazita.

Aurrekontuak kapituluka, merkatu-prezioan.

3.2. Ataripeak eraikitzeko beharrezko dokumentazioa:

1.Etxebizitza bakoitzeko ataripe bat eraikitzeko lizentziaren eskaera egitean proiektu teknikoa eskatzen da, eta bertan EKTren Proiektuan biltzen den I. Eranskinean ezarritako dokumentazioaz osatua.

Egurtegi bat edo ataripe bat eraikitzeko Udalean aurkeztutako eskaera guztietan, dagokion lizentziaeskatzeko, hirigintzako araudia ere zorrotz bete behar da.

4. artikulua. Egurtegien ezaugarri teknikoak.

4.1. Mota guztietako egurtegietarako baldintza teknikoak:

Arau hau indarrean sartzen denetik eraiki edo instalatu nahi den egurtegi orok, atxikia nahiz exentua izan,baldintza hauek bete behar ditu:

a) Gehienezko azalerak 8 m²-koa izan behar du.

b) Estalkiaren gehienezko maldak % 30ekoa izan behar du.

c) Estalkia estaltzeko materialak teilazkoa edo antzekoa izan behar du.

d) Egurtegiaren egituraren materialak zurezkoa izan behar du.

e) Punturik baxuenean gutxienez 2 m-ko altuera izan behar du, eta 2,6 m-koa gehienez.

f) Egurtegiak ezin izango dira eraiki fatxada nagusian, eta ezin izango dituzte estali etxeko baoak, bizigarritasunerako beharrezkoak direnak.

g) Egurtegiek ezin izango dute okupatu partzela mugakideetako eraikinekiko 3 m-ko distantzia.

h) Egurtegietako alboek irekiak izan behar dute, itxiturarik gabe.

4.2. Eraikinari atxikitako egurtegietarako baldintza teknikoak:

1. Eraikinari atxikitako egurtegiak bigarren mailako fatxadetako batera(eraikinaren alboaedo atzealdea) mugatuko dira, eta ez dira baimenduko eraikinaren fatxada nagusian.Baimenduta daude ondoan dauden hormetan, baldin eta trinkoak badira, eta bi metrotik gorako altuera izanez gero.
2. Gehienezko sakonerak eta zabalerak2 metrokoa izan behar dute, eta kanpoko zutabeek era bete behar dituzte neurri horiek.
3. Egurtegiaren luzerak ezin izango du inoiz eraikinaren beste fatxada batzuen lerrokadura gainditu.

4. Egurtegiaren estalkiak isurki bakarrekoa izan behar du, eta beti errespetatu behar ditu araudi honetako 4.1. atalean zehaztutako maldak.

5. Egurtegiaren instalakuntzak sorturiko inpaktu desegokia gutxitzera bideraturiko neurriak hartzera behartu ahal izango du udaletxeak. Ordenantza honetan ezarritako neurriak aldatzea ere bai, beti ere onarturiko gehienezko azalera gainditu gabe.

ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR




2 m gehienez / 2 m gutxienez 2 m gehienez / 4 m gehienez

4.3. Egurtegi exentuetarako baldintza teknikoak:

1. Egurtegi exentuek 4 metroko zabalera izango dute gehienez, eta neurri horien barnean hartzen dira kanpoaldeko zutabeak, araudi honetako 4.1. atalean ezarritako gehienezko azalera errespetatuz.

2. Egurtegiaren luzera 4 metrokoa izan daiteke gehienez, eta neurri horien barnean hartzen dira kanpoaldeko zutabeak, araudi honetako 4.1. atalean ezarritako gehienezko azalera errespetatuz.

3. Egurtegi exentuaren estalkiak bi isurkikoa izan behar du, eta beti errespetatu behar ditu araudi honetako 4.1. atalean zehaztutako maldak.

4. Egurtegiaren instalakuntzak sorturiko inpaktu desegokia gutxitzera bideraturiko neurriak hartzera behartu ahal izango du udaletxeak. Ordenantza honetan ezarritako neurriak aldatzea ere bai, beti ere onarturiko gehienezko azalera gainditu gabe.

ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR




4 m gehienez / 2 m gutxienez




4 m gehienez / 4 m gehienez

5.1. artikulua. Ataripekoetarako baldintza teknikoak:

Arau hau indarrean sartzen denetik eraiki edo instalatu nahi den ataripeko orok baldintza hauek bete behar ditu:

a) Ataripekoaren egituraren materialak zurezkoa izan behar du.

b) Ataripekoaren gehienezko altuera, kanpoaldeko lerrokaduran neurtua, 2,70 metrokoa izango da, eta estalkiaren gehienezko malda %30ekoa.

c) Ataripekoaren alboek irekiak izan behar dute, itxiturarik gabe.

d) Ataripekoaren alboko lerrokaduraren kanpoaldeak 2 metroko gutxieneko distantzia izan behar dualdameneko partzelaren mugekiko, baita espazio publiko baten mugakide denean ere.

e) Ataripekoen estalkiak isurki bakarrekoa izan behar du, eta beti errespetatu behar ditu aurretik zehaztu diren maldak.

c) Estalkia estaltzeko materialak teilazkoa edo antzekoa izan behar du.

g) Ataripekoak bigarren mailako fatxadetako batera (eraikinaren alboa edo atzealdea) mugatuko dira, eta ez dira baimenduko eraikinaren fatxada nagusian.

h) Gehienezko sakonerak eta zabalerak 4,00 metrokoa izan behar dute, eta kanpoko zutabeek ere bete behar dituzte neurri horiek.

i) “a.10 Lehendiko Bizitegi Kokapeneko Partzela” partzeletan, gehienez 5,50 metroko sakonera eta zabalera baimenduko dira, eta neurri horien barnean hartzen dira kanpoaldeko zutabeak.

j) Ataripekoaren luzera dagokion fatxadaren luzeraren berdina izan daiteke gehienez, eta ezin izango du gainditu eraikinaren gainerako fatxaden lerrokadura.

k) Ataripekoaren instalakuntzak sorturiko inpaktu desegokia gutxitzera bideraturiko neurriak hartzera behartu ahal izango du udaletxeak. Ordenantza honetan ezarritako neurriak aldatzea ere bai, beti ere onarturiko gehienezko azalera gainditu gabe.




4,00 m gehienez / 2,00 gutxienez / Gehienezko lerrokadura fatxadarekiko / 2,00 m gutxienez

ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR




4,00 m gehienez / 2,70 m gehienez / 2,00 gutxienez

6. artikulua. Eraikigarritasuna.

Egurtegi baten eraikuntzak ez dakar berekin eraikigarritasuna gehitzea.

Ataripeko baten eraikuntzak ez dakar berekin eraikigarritasuna gehitzea etxebizitza kontsolidatuetan.

7. artikulua. Zergak, tasak eta eskubideak ordaintzea.

1. Egurtegi edo ataripeko bat eraikitzean ordaindu egin behar da eraikuntzen, obren eta instalazioen gaineko zerga, Ordenantza Fiskaletan ezarritakoaren arabera.

2. Lizentziak kasu eta modalitate desberdinetan tramitatzeagatiko tasen zenbatekoa dagozkien Ordenantza Fiskaletan finkatuko da.

8. artikulua. Erantzukizuna.

Egurtegien eta ataripekoen titularrak dira haien funtzionamendu eta mantentze egokien arduradun eta erantzule, baita instalazioetako osasun- eta segurtasun-baldintza egokienak ere.

9. artikulua. Arau-hausteak.

Kasu bakoitzean aplikagarri diren 2/2006 Legean, Euskal Herriko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaneta 3/1998 Lege Orokorrean, Ingurumenaren Zaintzari buruzkoantipifikatutako arau-hauste administratiboen kalterik gabe, Ordenantza honen ondorioetarako sailkatuko egingo dira arau-hausteak –arinak, larriak eta oso larriak–zabarkeria-mailaren,sortutako kaltearen larritasunaren eta behin eta berriz araua hautsi izanaren arabera.

A. Arau-hauste arinak dira:

1. Ordenantza honetan eta legezko eta araubidezko gainerako xedapenetan bildutako betebeharrak eta debekuak bete ez izana, arau-hauste horren izaera dela-eta beste sailkapen batean sartzen ez denean izan ezik.

B. Arau-hauste larriak dira:

1. Egurtegia edo ataripekoa alboetako itxiturekin estaltzeari ekitea, aldi baterako baldin bada ere.
2. Hiru arau-hauste arin egitea bi urteren barruan.

C. Arau-hauste oso larriak dira:

1. Egurtegiak instalatzea dagokion lizentziarik edo baimenik gabe, edo horietan ezarritako baldintzak bete gabe.
2. Baimenak edo lizentziak tramitatzeko beharrezkoakdiren datuak ezkutatzea edo faltsutzea.
3. Udal aginduak eta akordioak ez betetzea, egurtegien eta ataripeen instalazioari eta erabilerari buruzkoak.
4. Hiru arau-hauste larri egitea bi urteren barruan.

10. artikulua. Zehapenak.

Ordenantza hau ez betetzea zigortu egingo da300 euro eta 20.000 euro bitarteko isunekin, eskala honen arabera:

a) Arau-hauste arinak:300 - 1.000 euro.

b) Arau-hauste larriak:1.001 - 6.000 euro.

c) Arau-hauste oso larriak:6.001 - 20.000 euro.

Gainera, egurtegia edo ataripea erabili ezin ahal izateko moduan utzita (hustea, zigilatzea, instalazioa desegitea…) zigortu ahal izango diraarau-hauste larriak eta oso larriak.

11. artikulua. Zigortzeko eskumena.

Zigortzeko ahala erabiltzeko dagokion espedienteari hasiera eman eta bideratu beharko da, indarrean dauden legezko edo araubidezko xedapenetan ezarritakoa betez.

Ordenantza honetan tipifikatutako arau-hausteetarako aurreikusten diren zehapenak Udaleko alkateak ezarriko ditu.

12. artikulua. Kautelazko neurriak.

Zigor-espedienteari hasiera emandakoan, arau-hauste gehiago egitea saihesteko kautelazko neurriak hartu ahal izango dira, udal zerbitzu teknikoek egokitzat jotzen dituztenak epaitutako gertakariek edo antzeko beste batzuek jarraitzea edo errepikatzea edo haiek sortu izan dituzten kalteek irautea saihestearren, edo haiek arintzearren.

Kautelazko neurrien akordioak arrazoituta egon behar du, eta aldez aurretik interesatuen entzunaldia eskatuko du hamar eguneko epean ohi denez, betiere beharrezko kautelazko neurriak indargabetuta geratzen ez badira aldez aurreko entzunaldiaren tramitea egin artean neurri horiek hartzea atzeratzen bada; halako kasuetan, horren ordez, alegazioak egin ahal izango dira ondoren, epe berdinaren barruan.

13. artikulua. Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa.

Arau-hausteak, arinak direnean,bi urteren buruan iraungiko dira; lau urteren buruan larriak direnean, eta bost urteren buruan oso larriak direnean.

Eta arau-hauste arinengatik ezarritako zehapenak urte baten buruan iraungiko dira; hiru urteren buruan arau-hauste larriengatik ezarritakoak, eta bost urteren buruan arau-hauste oso larriengatik ezarritakoak.

Xedapen Indargabetzailea.

Ordenantza hau indarrean sartzean egongo diren egurtegien eta ataripeen titularrek 10 hilabeteko epea izango dute 3, 4, 4.1, 4.2, 4.3 eta 5. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

Azken Xedapena.Indarrean sartzea.

Ordenantza hau Toki Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz sartuko da indarrean.

Bigarrena.- Testu osoa GAOn argitaratzea.

## 6. KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZKO KREDITU ALDAKETAREN 2019-KALD-0000004-00 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSAMENA

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Idazkari Kontu-hartzaileak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, bozketa egin eta gero, legezko gehiengoz, honako hau

ERABAKI DU

**Lehenengoa.-** Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

**KREDITU GEHIGARRIAK**

| Kapituluak | Izena | Gehikuntzak |
|---|---|---|
| 1 | PERTSONAL GASTUAK | 3.922,52 |
| 2 | GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN | 6.214,49 |
| 4 | TRANSFERENTZIA ARRUNTAK | 297,96 |
| 6 | INBERTSIO ERREALAK | 12.475,11 |
| **KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA** | | **22.910,08** |

**FINANTZAKETA**

| Kapituluak | Izena | Zenbatekoa |
|---|---|---|

| | | |
|---|---|---|
| 8 (SARRERAK) | FINANTZA AKTIBOAK | 22.910,08 |
| | **GUZTIRA** | **22.910,08** |

**Bigarrena.-** Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

## 7. TOLOSALDEKO EMAKUME ETXEA

Datorren Udalbatzarako gaiaz informazio gehiago jasotzekotan geratu gara erabakiren bat hartu ahal izateko.

## 8. GALDERA ERREGUAK

**- Jose Ignazioren baja egoera:** Jose Ignaziok min hartu du belaunean lanean ari zela eta bajan dago. Bere ordezkapenak egiten dituen Aitor lanean hasi da Diva enpresan, baina Jose Ignazioren ordezkoa topatzen dugun bitartean %50ean kontratatuko dugu zabor bilketa zerbitzua gutxienez bermatzeko.

Era berean, Lanbide-ren bidez ahalik eta azkarren lan poltsa eratu eta ordezkoa kontratatzen saiatuko gara.

**- Hilerriko obrak:** Hilerrian 2 nitxo bakarrik daude libre eta ahalik eta azkarren nitxo berriak egin beharra dago. Asmoa ezker aldean lurrean dauden gorpuak altxa eta nitxo sail berri bat egitea da. Era berean, hilerriko hormak aprobetxatuko dira kutxa txikiagoak jartzeko.

Imara-ri eskatu zaio proiektua lantzen hasteko.

**- Festen inguruko balorazioa:** Irailak 27an, ostiralean, bilera egingo dute festa batzordeko Aingeru Galarraga eta Aitziber Orbegozo eta Idazkari Kontu-hartzailea den Oihan Ostolazak Albiztuzko festen inguruko balorazioa egiteko.

**- Kutxabank-eko ordezkariarekin bilera:** Kutxazain automatiko kentzeak herrian sortu duen ezinegona ikusirik Kutxabank-eko ordezkariari bilera eskatzea erabaki da.

ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

Osoko bilkura, 20:15etan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jasoa gera dadin honakoa sinatzen dut.

Albizturren, 2019ko irailaren 27an

72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)

Firmado digitalmente por 72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Fecha: 2023.10.25 13:26:23 +02'00'

OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J

Firmado digitalmente por OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Fecha: 2023.10.26 09:27:48 +02'00'